



**ODIETAKO UDALAK 2024KO ABENDUAREN 30EAN EGINIKO
OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.**

Erripan, Odietako Bailara, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 2024ko ABENDUAREN HOGEITA HAMARREAN, 19:00 direlarik, azpian aipatzen direnak bildu dira bilkura arruntean, legez eginiko deialdia egin ondoren, Alberto Urdaniz Elizondo alkatea buru delarik eta Alfonso Araujo Guardamino Udalaren Idazkariak lagundurik.

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK: ANNE OYARZUN DOMEÑO, IÑAKI GUERENDIAIN AZPIROZ, CAROLINA AZANZA MONTALVO, OIHANE ORRIO REY, ANE MIREN BUITRON ZAZPE, JUAN PEÑALVER HERMIDA ETA ALBERTO URDANIZ ELIZONDO.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK: Inor ez.

Akta honen erredakzioari dagokionez, Udalaren idazkari Araujok jakinarazi du bilkura bide elektronikoz grabatu behar dela, eta, gero, grabazioa audio formatuan gordeko dela « Pleno 30-12-2024 » izenarekin USB fitxategi informatiko batean "GRAB PLENOS" izenarekin. Fitxategia udal bulegoetan gordeko da, eta Udalbatzako edozein zinegotzik edo legeak eskubide hori ematen dion edozeinek entzuten ahal izanen du bulego horietan.

Hortaz, bilkura honetako aktaren edukia euskarri horretan jasoia egonik, era berean paperezko euskarrian idatzi da, zorrotz betez Toki Korporazioen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 109. 1.atala artikuluan ezartzen den moduan, non adierazten den Udalaren osoko bilkuren aktetan honako hau jaso behar dela:

..... eta beste alderdi batzuk, hala nola, bilkuraren izaera, hori egin den eguna eta tokia, bertaratu diren udalbatza kideen eta idazkariaren izenak

..... bozketen emaitza, harturiko erabakien testua eta bilkura hasiera eta bukaera ordua, **"eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak"**, hori guztia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. eta 19. artikuluen edukiarekin bat.

Hori dela eta, adieraztea aktan azken alderdi hori jasotzen denean, hau da, "eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak", laburpen bat da non lehentasuna ematen zaion zehatz-mehatz esaten denaren funtsezkoari esateko moduaren edo hitzez hitzezkoaren ginetik (grabazioan



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

jasoa), hori guztia akta irakurtzen duten eta bertan egon ez zirenek hobeki uler dezaten; eta, beraz, litekeena da hitz zehatzak bat ez etortzea grabazioan esandakoarekin, baina bai jarreraren asmoarekin, zentzuarekin eta funtsarekin.

EH Bildu udal taldeko Ane M. Buitron zinegotziak udalbatzako gainerako kideei esan die bilkura grabatu behar duela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 79. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako eskubidea erabiliz.

Udalburuak saioa irekita, 19:05ean, gai-zerrendako honako gai hauek aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onestea.

Urdaniz alkateak galdetu du eragozpenen bat dagoen 2024ko irailaren 24an eginiko osoko bilkura arrunteko aktaren (deialdiarekin batera banatua) edukiri dagokionez.

Aktaren edukiri dagokionez eragozpenik ez dagoenez, **Udalbatzaren kideek aho batez ERABAKI DUTE akta onestea.**

2.- Hasiara batez onestea 2025. urteko aurrekontuen espedientea eta hura betearazteko oinarriak eta 3.- EH Bildu udal taldearen mozioa "Aurrekontu Partzipatiboak" gaiari buruz.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. Honako gai hauek nabarmendu dira: Lehendabizi EH Bildu Udal Taldeak eskaturiko mozioa jorratzea proposatu du, hura onartuz gero, aurrekontuen edukia aldatuko baita. Aurrekontuen edukiri dagokionez, nabarmendu du aurreikusten den gastuaren zenbatekoa 325.000 eurokoa dela, gutxi gorabehera, eta diru-sarrera 400.000 eurokoa, gutxi gorabehera. Aurten berriz ere bete behar dira Europatik ezarritako arau fiskalak, bai gastuaren araua bai aurrekontuak egonkortzeari dagokionez, eta horregatik nabarmendu du superabita dagoela.

Nolanahi ere, urtean zehar obraren bat egitea planteatzen bada, dagozkion aurrekontu-aldaketak egingo dira. Adierazi du, halaber, aurten gastu arruntak igo egin direla eta inbertsio gisa aurreikusi direla zenbait herri-bidetan mando-bizkar erako azpiegitura jartzea eta Erripako autobus-geltokia urbanizatzea.

Jarraian, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hartu du hitza, eta osoko bilkuraren grabazioan jaso da. Bere ustez, hobe da bi gai horiek bereizita lantzea eta gai-zerrendaren arabera egitea. "Aurrekontu partzipatiboak" buruzko atal bat onartzeko proposamenari dagokionez, adierazi du

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

aspaldidanik planteatu dutela, eta onartu beharreko aurrekontuen edukian sartu ahal izateko behar besteko aurretiaz egin zela dagokion eskaera Udalean.

Azkenik, gai-zerrendako puntu horri buruz aho bateko akordiorik ez dagoenez, dagokion bozketa egin da. Hona hemen horren emaitza:

2025eko aurrekontuak onesteari buruzko bozketa.

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Gauzak horrela, eta bozketaren emaitza ikusita, **erabaki hau ONARTU da, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabaki horren testua:

"Gaia: Hasiera batez onestea 2025. urteko aurrekontuen espedientea eta hura betearazteko oinarriak.

.- Ikusirik 2025eko Aurrekontu Orokor Bakarraren espedienteari dagokion dokumentazioa.

.- Ikusirik horri dagokion araudiaren edukia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 201. artikuluan eta hurrengoetan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan eta harekin bat datozenean dagoena.

ERABAKI DA

LEHENA.- Hasiera batez onestea 2025. urterako Aurrekontu Orokor Bakarra, honekin batera doan Eranskinean kapitulutan laburtua dagoena.

BIGARRENA.- Onestea, halaber, 2025. urterako Aurrekontu Orokor Bakarra betearazteko oinarriak.

HIRUGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratu ondoren, interesa duten bizilagunek espedientea aztertu eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

LAUGARRENA.- Baldin eta aurreko puntuan aipaturiko jendaurreko epea iraganik erreklamaziorik egin ez bada, 2025. urterako Aurrekontua behin betiko onetsitatzeko da.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

BOSGARRENA.- 2025. urteko Aurrekontua behin betiko onetsi ondoren, hura kapitulutan laburtua argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta espedientea Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioiko Departamentura igorriko da."

Bozketa "Aurrekontu Partizipatiboei" dagokienez proposatu den Mozioa onesteari buruz.

Aldeko botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Kontrako botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Abstentzioak: bat ere ez.

Gauzak horrela eta ikusirik bozketaren emaitza, aurkezturiko mozioa EZ DA ONETSI.

4.- 2025. urteko Lan-egutegia onestea.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. Honako gai hauek nabarmendu ditu: Nafarroako Gobernuak finkaturiko jai-egunen eredu ofizialari jarraitzen zaio eta, urtero bezala, tokiko jai-egun gisa San Anton eguna aukeratu da, urtarrilaren 17a.

Ane Miren Buitron EH Bildu Udal Taldeko eledunak ez du hitza eskatu, baina ez omen dago adostasunik gai-zerrendako puntu honi buruz; horregatik, bozketa egin da, eta hauxe horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Abstantzioak: bat ere ez.

Gauzak horrela, eta bozketaren emaitza ikusita, **erabaki hau ONARTU da, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabaki horren testua:

"Gaia: 2025. urteko Lan-egutegia onestea.

.- Ikusirik Nafarroako Gobernuko Ekonomia Sozialeko eta Laneko zuzendari nagusiak ekainaren 12an eman zuen 493/2024 EBAZPENA (uztailaren 16ko 145. NAOn argitaratua), zeinaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekueratu behar ez diren 2025ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen baita eta ikusirik abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretuaren (1999ko abenduaren 31ko 164. NAOn argitaratua) 1. artikulua, zeinaren bidez Nafarroako Toki Administrazioetako funtzionarioen lanaldiaren urteko lanordu-kopurua ezartzen baita.

.- Ikusirik martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 37.2 artikuluan ezarrita daudela urtero lan egutegian egun baliogabetzat hartzen diren nazio esparruko jaiegunak, uztailaren 28ko

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

2001/1983 Errege Dekretuaren 45. artikuluan xedatutakoarekin bat (azaroaren 3ko 1346/1989 Errege Dekretuak onetsitako idazketaren arabera); izan ere, artikulua horrek indarra du oraindik, irailaren 21eko 1561/1995 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarraren arabera.

.- Horren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean 2025. urterako jaiegunak ezartzen dira, eta horiei eta beste jaiegun bat gehituko zaie, herri bakoitzeko udalak egiten duen proposamenaren arabera.

ERABAKI DA

LEHENA.- Odietakoko Udalaren zerbitzuko langileendako 2025. urtean jaiegun izanen diren asfegunen egutegia onestea, eta 2025. urterako ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren honako jaiegun hauek:

- o Urtarrilaren 1a, asteazkena: Urteberri eguna.
- o Urtarrilaren 6a, astelehena: Errege eguna.
- o Apirilaren 17a: Ostegun Santua.
- o Apirilaren 18a: Ostiral Santua.
- o Apirilaren 21a: Pazko bigarrena.
- o Maiatzaren 1a, osteguna: Langileen eguna.
- o Uztailaren 25a, ostirala: Santiago eguna.
- o Abuztuaren 15a, ostirala: Ama Birjinaren Jasokundea.
- o Azaroaren 1a, larunbata: Santu Guztien eguna.
- o Abenduaren 3a, asteazkena: San Frantzisko Xabierkoa - Nafarroaren Eguna.
- o Abenduaren 6a, larunbata: Konstituzioaren eguna.
- o Abenduaren 8a, astelehena: Ama Birjina Sortzez Garbia.
- o Abenduaren 25a, osteguna: Eguberri eguna.urtarrilaren

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2025ean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetarako jaiegun deklaratu diren egunak.

BIGARRENA.- Odietakoko Udaleko urteko benetako lanordu kopurua 1.303 izanen da, honela banatuta:

- Eguneko lanaldia, orokorrean, 6 ordukoa izanen da, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 15:00etara.
- Jendea hartzeko eta Erregistro Orokorra irekitzeko ordutegia 9:00etatik 14:00ak arte izanen da.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

Beti ere, 2025erako, orokorrean, Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen den urteko lanaldiak baldintzatuko du urteko lanaldiaren iraupena. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren doikuntzak egingen dira.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, baita Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

5.- 2025ean kirol jarduerak egiteko dirulaguntza deialdia onestea

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. Dirulaguntza horiek duela urte batzuetatik onesten ari dira.

EH Bildu Udal Taldeko eledun Ane Miren Buitronek ez du hitza eskatu.

Horren arabera, osoko bilkuran dauden zinegotziak gaiaz aritu ondoren, **ahobatez ERABAKI DA** gai zerrendako puntu hau onestea.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartutako, adieraztea **erabaki hau hartu dela Udaltzatuko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin**. Hona hemen erabakia hitzez hitz:

“Gaia: 2025ean kirol jarduerak egiteko dirulaguntza deialdia onestea.

.- Ikusirik dirulaguntza deialdia arautzen duten Oinarrien edukia, lerroburuan eta espedientean daudenak.

.- Ikusirik, bereziki, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/2990 Foru Legearen 221. eta 222. artikuluen edukia.

.- Ikusirik aplikatzekoa den gainerako araudi honen edukia:

.- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.

.- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

.- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea eta, osagarri gisa, Nafarroako Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

.- Dirulaguntzei buruzko Estatuko araudia.

.- Ikusirik Udaleko idazkari-kontuhartzailearen 2016ko azaroaren 30eko txostenaren edukia. Txosten horretan ondorioztatzen da deialdi horren oinarriak bat datozela zuzenbidearekin eta, bereziki, aplikatu beharreko dirulaguntza publikoak arautzen dituen araudiarekin.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

.- Hasiera batean 2024ko abenduaren 30ean onetsitako 2025. ekitaldiko aurrekontuetan "KIROL JARDUERETARAKO LAGUNTZAK 2025" izeneko berariazko gastu-partida bat dago, 1 3410 48000. zenbakiduna eta 950,00 eurokoa.

ERABAKI DA

LEHENA.- Odieta udalerrian 2025ean kirol jarduerak egiteko dirulaguntza deialdia arautuko duten Oinarriak onestea, behar bezala eginbidetuak espedientearekin batzen direnak.

BIGARRENA.- 950,00 euroko gastua baimentzea, "KIROL JARDUERETARAKO LAGUNTZAK 2025" izeneko 2025 ekitaldiko 1. ekitaldiko gastu-aurrekontuko 3410 48000 partidaren kontura.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzen deialdi honen iragarkiak argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, eta Odieta kontzejuetako iragarki-tauletan. Era berean, dagokion iragarkia hurrengo Udal Informazio Aldizkariaren lehen orrialdean argitaratzea. "

6º.- Odieta udalerrian enplegua sustatzeko laguntzen deialdia 2025. urterako.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. Laguntza hauek duela urte batzuk onartzen ari dira, baina urte batzuetan ez da ia eskaerarik izaten.

EH Bilduko Udal Taldeko eledun Ane Miren Buitronek ez du hitza eskatu.

Horren arabera, osoko bilkuran dauden zinegotziak gai azaritu ondoren, **aho batez ERABAKI DA** gai zerrendako puntu hau onestea.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onesteko, adieraztea **erabaki hau hartu dela Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin**. Hona hemen erabakia hitzez hitz:

"Gaia: Odieta udalerrian enplegua sustatzeko laguntzen deialdia 2025. urterako.

.- Ikusirik aurreko ekitaldi ekonomikoetan Udalak osoko bilkuretan harturiko erabakien edukia, non honako deialdi hau onetsi baitzen: "Odieta udalerrian enplegua sustatzeko laguntzen deialdia" 2014., 2015., 2016., 2017., 2018., 2019., 2020., 2021., 2022., 2023. eta 2024. ekitaldietarako.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

.- Ikusirik 2025. ekitaldiari dagozkion dirulaguntzen deialdia arautzen duten Oinarrien edukia.

.- ikusirik, bereziki, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 221. eta 222. artikuluen edukia.

.- Aplikatu beharreko gainerako araudiaren edukia ikusita, honako hau:

.- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.

.- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

.- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea eta, osagarri gisa, Nafarroako Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

.- Dirulaguntzei buruzko Estatuko araudia.

.- Ikusirik Udaleko idazkari-kontuhartzailearen 2014ko martxoaren 13ko txostenaren edukia. Txosten horretan ondorioztatzen da deialdi horren oinarriak bat datozela zuzenbidearekin eta, bereziki, aplikatu beharreko dirulaguntza publikoak arautzen dituen araudiarekin.

.- Ikusirik 2025. ekitaldirako Udal Aurrekontuen edukia, hasiera batean 2024ko abenduaren 30ean onetsiak, eta, bereziki, "2025ean ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZAK" izenekoaren edukia, 2.600,00 € dituen.

ERABAKI DA

LEHENA.- Odietako Udalerrian 2025ean Enplegua Sustatzeko Laguntzen Deialdia" arautuko duten Oinarriak onestea, behar bezala eginbidetuak espedientearekin batzen direnak.

BIGARRENA.- 2.600,00 euroko gastua baimentzea, "2025ean ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZAK" izeneko 2025 ekitaldiko gastu-aurrekontuko 1 2410 78000 zenbakia duen partidaren kontura.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzen deialdi honen iragarkiak argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, eta Odietako kontzejuetako iragarki-tauletan.

7º.- Aurrekontu aldaketak: 2/2024 (kreditu berezia), 3/2024 (kreditu gehikuntza), 4/2024 (kreditu gehikuntza) eta 5/2024, (kreditu gehikuntza).

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. 2/2024 aldaketa Ostizko urbanizazio berriko mantentze lanen gastuei dagokie. 3/2024 aldaketa autobusezko garraio publikoaren

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

gastuaren kofinantzazioari dagokio. 4/2024 aldaketa Ostizko Kontzejuaren aldeko konpentsazioari dagokio urbanizazio berrian dagoen BOEren (Babes Ofizialeko Etxebizitzaren) orubea erosteko Notaritzan izandako gastuengatik. 5/2024 aldaketa obrak egiteko kontzejuendako dirulaguntzei dagokie.

EH Bildu Udal Taldeko eledun Ane Miren Buitronek ez du hitza eskatu.

Azkenik, gai-zerrendako puntu horri buruz aho bateko akordiorik ez dagoenez, dagokion bozketa egin da (aurrekontu aldaketa bakoitzeko bana). Hona hemen horren emaitza:

Aurrekontuko 2/2024 aldaketaren bozketa:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiaín eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Kontrako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Aurrekontuko 3/2024 aldaketaren bozketa:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiaín eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Kontrako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Aurrekontuko 4/2024 aldaketaren bozketa:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiaín eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Kontrako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Aurrekontuko 5/2024 aldaketaren bozketa:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiaín eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.

Kontrako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Gauzak horrela, eta bozketaren emaitza ikusita, **erabaki hau ONARTU da, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabaki horren testua:

“Aurrekontu aldaketak:

2024. ekitaldiko aurrekontuaren 2/2024 aldaketa: Kreditu berezia.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA
(Navarra-Nafarroa)

Honako gastuko partida hau sortzea:

PARTIDA	ALDAKETA MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1650 21300	Kreditu berezia	Argiteri publikoaren mantentzea	2.500,00

Finantzabideak. Diru-sarrerako partida berri bat sortu eta kreditua deuseztatzea:

PARTIDA	FINANTZAZIO MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
1 68100	Kreditu berezia	Aseguru konpentsazioa	2.075,00
1 1510 2276000	Kreditua deuseztatzea	Hirigintza aholkularitza	425,00

Aldaketaren ondoko diru-zaintzako gerakinaren egoera:

2023ko ekitaldiko Kontuen Espedientea 2024ko martxoaren 12an onartu ondoren, hau da 2023ko ekitaldiko Diruzaintzako Gerakinaren egoera: Diruzaintzako Gerakina, guztira, **172.377,34 €**, eta horiek guztiak gastu orokorrei dagozkie, hau da, 0,0 € baliabide lotuen bidez.

1/2024 Aurrekontu Aldaketa onartu ondoren, aldaketa bat gertatu zen 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean. Honela geratu zen: Diruzaintzako gerakina, guztira, **161.377,34 €**-koa. Soberakin guztiak gastu orokorrei dagozkie, eta, beraz, 0,00 € izan ziren baliabide lotuen bidez.

2/2024 aurrekontu-aldaketaren espediente hau onartu ondoren, ez da aldaketarik gertatu 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean.

Aldaketaren prozedura:

Udalbatzak hasierako onespina eman ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da Odietako udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, 15 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu dhal izan daitezzen. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, espedientea automatikoki onartuko da. Alegazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak espedientea behin betiko onartu beharko du, eta alegazio horiei buruz egokituz jotzen duena erabaki.

2024. ekitaldiko aurrekontuaren 3/2024 aldaketa: Kreditu berezia.

Honako gastuko partida hau sortzea:

PARTIDA	ALDAKETA MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4412 22730	Kreditu berezia	Hiriarteko bidaiari-garraioa	300,00

Finantzabideak. Kreditua deuseztatzea:

PARTIDA	IZENA	FINANTZAZIO MOTA	ZENBATEKOA
1 4910 22200	TB mantentze lanak	Kreditua deuseztatzea	300,00

**AYUNTAMIENTO**

DEL VALLE DE

ODIETA31799 - ERRIPA
(Navarra-Nafarroa)**Aldaketaren ondoko diru-zaintzako gerakinaren egoera:**

2023ko ekitaldiko Kontuen Espedientea 2024ko martxoaren 12an onartu ondoren, hau da 2023ko ekitaldiko Diruzaintzako Gerakinaren egoera: Diruzaintzako Gerakina, guztira, **172.377,34 €**, eta horiek guztiak gastu orokorrei dagozkie, hau da, 0,0 € baliabide lotuen bidez.

1/2024 Aurrekontu Aldaketa onartu ondoren, aldaketa bat gertatu zen 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean. Honela geratu zen: Diruzaintzako gerakina, guztira, **161.377,34 €**-koa. Soberakin guztiak gastu orokorrei dagozkie, eta, beraz, 0,00 € izan ziren baliabide lotuen bidez.

2 eta 3/2024 aurrekontu-aldaketaren espedienteak onartu ondoren, ez da aldaketarik gertatu 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean.

Aldaketaren prozedura:

Udalbatzak hasierako onespina eman ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da Odietako udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, 15 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezten. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, espedientea automatikoki onartuko da. Alegazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak espedientea behin betiko onartu beharko du, eta alegazio horiei buruz egokituz jotzen duena erabaki.

2024. ekitaldiko aurrekontuaren 4/2024 aldaketa: Kreditu berezia.**Honako gastuko partida hau sortzea:**

PARTIDA	ALDAKETA MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1650 22100	Kreditu berezia	Argiteria publikoaren energia	1.000,00
1 1521 68100	Kreditu berezia	BOE Orube bat erostea Ostitzen	800,00

Finantzabideak. Kreditua deuseztatzea:

PARTIDA	IZENA	FINANTZAZIO MOTA	ZENBATEKOA
1 1510 2276000	Hirigintza aholkularitza	Kreditua deuseztatzea	1.800,00

Aldaketaren ondoko diru-zaintzako gerakinaren egoera:

2023ko ekitaldiko Kontuen Espedientea 2024ko martxoaren 12an onartu ondoren, hau da 2023ko ekitaldiko Diruzaintzako Gerakinaren egoera: Diruzaintzako Gerakina, guztira, **172.377,34 €**, eta horiek guztiak gastu orokorrei dagozkie, hau da, 0,0 € baliabide lotuen bidez.

1/2024 Aurrekontu Aldaketa onartu ondoren, aldaketa bat gertatu zen 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean. Honela geratu zen: Diruzaintzako gerakina, guztira, **161.377,34 €**-koa. Soberakin guztiak gastu orokorrei dagozkie, eta, beraz, 0,00 € izan ziren baliabide lotuen bidez.

2, 3 eta 4/2024 aurrekontu-aldaketaren espedienteak onartu ondoren, ez da aldaketarik gertatu 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean.

Aldaketaren prozedura:

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

Udalbatzak hasierako onespina eman ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da Odietako udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, 15 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezzen. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, espedientea automatikoki onartuko da. Alegazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak espedientea behin betiko onartu beharko du, eta alegazio horiei buruz egokitzen jotzen duena erabaki.

2024. ekitaldiko aurrekontuaren 5/2024 aldaketa: Kreditu berezia.

Kreditu gehikuntzak:

PARTIDA	HASIERAKO AURREKONTUA	ALDAKETA	ZENBATEKOA
1 9430 76801-Dirulaguntzak Kontzejuetako obrak	6.200,00	13.800,00	20.000,00

Finantzabideak. Kreditua deuseztatzea:

PARTIDA	IZENA	FINANTZAZIO MOTA	ZENBATEKOA
1 1510 2276000	Abiadura moteltzekoak	Kreditua deuseztatzea	12.500,00 1.300,00
1 1360 6090001	Suteen kontrako bitartekoen ornidura	Kreditua deuseztatzea	1.300,00

Aldaketaren ondoko diru-zaintzako gerakinaren egoera:

2023ko ekitaldiko Kontuen Espedientea 2024ko martxoaren 12an onartu ondoren, hau da 2023ko ekitaldiko Diruzaintzako Gerakinaren egoera: Diruzaintzako Gerakina, guztira, **172.377,34 €**, eta horiek guztiak gastu orokorrei dagozkie, hau da, 0,0 € baliabide lotuen bidez.

1/2024 Aurrekontu Aldaketa onartu ondoren, aldaketa bat gertatu zen 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean. Honela geratu zen: Diruzaintzako gerakina, guztira, **161.377,34 €**-koa. Soberakin guztiak gastu orokorrei dagozkie, eta, beraz, 0,00 € izan ziren baliabide lotuen bidez.

2, 3, 4 eta 5/2024 aurrekontu-aldaketaren espedienteak onartu ondoren, ez da aldaketarik gertatu 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean.

Aurrekontuan 6/2024 aldaketa egitea onartu ondoren, aldaketa bat sortu da 2023. ekitaldiko diru-zaintzako gerakinean, hau da: diru-zaintzako gerakin osoa **143.350,24 €**; dena gastu orokorrei dagozkie, eta, beraz, 0,00 € izan ziren baliabide lotuen bidez.

Aldaketaren prozedura:

Udalbatzak hasierako onespina eman ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da Odietako udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, 15 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezzen. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, espedientea automatikoki onartuko da. Alegazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak espedientea behin betiko onartu beharko du, eta alegazio horiei buruz egokitzen jotzen duena erabaki."

11.- Alkatetzaren azken ebazpenak jakinaraztea osoko bilkuran.

Urdaniz alkateak Udalbatzako kideei dokumentu bat eman die, non aurreko osoko bilkuratik egin diren ebazpenen laburpena jasotzen den.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

12.- Galde-eskeak.

Ez da eskaerarik ez galderarik egin.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, udalburuak bilkura amaitutzat eman du, 19:50ean, eta akta hau egin dut. Eta nik, idazkari naizenez, horren guztiaren fede eman dut.

8º.- Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionala emakumeen kontrako indarkeriari buruz.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da.

EH Bildu Udal Taldeko eledun Ane Miren Buitronek ez du hitza eskatu.

Horren arabera, osoko bilkuran dauden zinegotziak gaiaz aritu ondoren, **ahobatez ERABAKI DA** gai zerrendako puntu hau onestea.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartarako, adieraztea **erabaki hau hartu dela Udaltzatuko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin**. Hona hemen erabakia hitzez hitz:

“Gai: Atxikitzea/onestea EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKO adierazpen instituzionala.

Honako adierazpen honen edukia onetsi da:

Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko adierazpen Instituzionala.

EZ DA ANTZERKIA, INDARKERIA BIKARIOA DA

Gaur, azaroak 25, Nafarroako toki eta lurralde entitateok, beste behin ere, emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak irmoki gaitzesten ditugula adierazi nahi dugu. Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak zein haurrak beldurrik gabe, mehatxurik gabe eta beren eskubideen berme osoarekin bizi ahalko diren. Aurtan, indarkeria horren modu suntsitzaile eta krudelenetako batean jarri nahi dugu begirada: indarkeria bikarioan.

Matxismoaren muturreko adierazpen bat da, eta emakumeak kaltetzea du helburu. Horretarako, erasotzaileak bere gertuko jendea erabiltzen du, batik bat seme-alabak, emakumeari ahalik eta kalte emozional handiena eragiteko. Indarkeria mota horrek aztarna ezabaezina uzten du jasaten dutenengan, eta, kasu askotan,

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

neska-mutilen heriotza eragin dezake. Indarkeria mota horretan, agerian geratzen dira indarkeria matxistaren ezaugarri diren botere-dinamikak: erasotzaileek ez dituzte beren haurrak izaki independente gisa ikusten, bikotekideen gaineko kontrolaren hedapen gisa baizik. Are gehiago, indarkeria bikarioak emakumeak etengabe zalantzan jartzen dituen gizarte baten konplizitatea du, emakumeak agintetik kendu eta haien hitza zalantzan jartzen duena. Hori dela eta, leloak "Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da" dio.

"Hildako adingabeak amaren aurkako genero-indarkeria kasuetan, Espainian" izenburuko txostenaren arabera, 2013tik 2024ko urriaren 14ra bitartean guraso biologikoek, bikotekideek edo amaren bikotekide ohiek hildako adingabeen behin-behineko datuen kopurua 63 da, % 49 neskak eta % 51 mutilak. 2024an 10 kasu zenbatu dira (6 neskato eta 4 mutiko), azken hamarkadako kopururik altuena. Horregatik, funtsezkoa da errealitate konplexu hori aztertzea eta politika zehatzak aplikatzea ahalbidetzen duten informazio sistemak bermatzea.

Azken urteotan, kasu lazgarrien berri izan dugu, zeinetan adingabeak akabatu diren haien amak zigortzeko helburu hutsarekin. Ezin dugu onartu indarkeria bikarioaren biktima gehiago egotea; ezta adingabeen bizitza emakumeen aurkako indarkeria betikotzeko tresna bihurtzea ere.

2021ean onartutako Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko Lege Organikoak arautzen duenez, adingabeko seme-alabak genero-indarkeria egoeran bizi direla adierazten duten zantzu sendoak daudenean, agintaritzak judizialak, ofizios edo alderdi batek eskatuta, indarkeriaren egileari eten egingo zaio bere mende dauden adingabeei egin beharreko bisita-araubidea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2022an, genero-indarkeria kasuetako

% 8an baizik ez zen gurasoei bisita egiteko erregimena eten. Horren harira, NBEk Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruz duen kontalari bereziak sarri defendatu du erabaki judizialek mesede egiten dietela gizonei. Izan ere, emakumeen testigantzak ez dira gizonenak bezain sinesgarriak, aurreiritziak, generoari lotutako estereotipoak eta joera diskriminatzaile patriarkala direla eta.

Gure ustez, genero indarkeriaren arloan gure sistema juridikoan aurrerapen ukaezinak egin diren arren, arrakala handia dago oraindik Legearen eta haren aplikazio praktikoaren artean. Arazoaren larritasuna dela eta, premiazkoa da indarkeria matxistaren adierazpen horien biktimak babesteko sistemen funtzionamendua eraldatzea.

Ezinbestekoa da gure politikak eta baliabideak indartzen jarraitzea indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko, baita ikusezineei ere, indarkeria bikarioari, psikologikoari edo manipulazioari zein indarkeria instituzionalari. Emakumeek eta adingabeek bakean bizitzeko eskubidea dute, eta tokiko eta lurraldeko entitateek funtsezko erantzukizuna dugu alde horretatik. Ezin dugu beste alde batera begiratu; oinarrizko giza eskubideak urratzen dituen indarkeria hori prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromiso irmoa eta kolektiboa hartu behar dugu.

Hori dela eta, Nafarroako toki eta lurralde entitateetatik ondorengo konpromiso hauek hartu ditugu:

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

1.- Indarkeria bikarioari buruzko berariazko sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, indarkeria- mota hori ikusarazteko eta herritarrak haren ondorio suntsitzaileen inguruan.

2.- Toki- eta lurralde-entitateetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (poliziak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta abar), indarkeria bikarioaren kasuak antzeman eta modu goiztiar eta eraginkorrean jokatu ahal.

3.- Babes integraleko neurriak bultzatzea, emakumeentzako eta haien seme-alabentzako, dituzten beharrak kontuan hartuta: arlo psikologikoan, juridikoan zein sozialean baliabideak izan ditzaten bermatuz, etaerreparazioa eta autonomia.

4.- Herrialdeko Administrazioaren eta tokiko entitateen arteko ekintzak koordinatzea, indarkeria bikarioaren aurrean erantzun azkar eta eraginkorra bermatzeko, lege- hutsuneak saihestuz eta biktimen berehalako babesa.

5.- Tokiko berdintasun politiketan indarkeria bikarioaren ikuspegia txertatzea, indarkeria matxista prebenitzeko eta desagerrarazteko ekintzetan zehar-lerro gisa egon.

Aurten, Azaroaren 25ean, berdintasunean oinarritutako jendarte justu bat eraikitze konpromisoa berresten dugu, emakumeen aurkako indarkeriarik eta indarkeria bikariorik onartuko ez duena. Eta lanean jarraituko dugu haur eta emakume guztiak, duintasunez, askatasunez eta autonomiaz bizi daitezen."

BIGARRENA.- Ebazpen hau Odietako Udalaren hurrengo osoko bilkurako gaitzerrendan sartzea, hala badagokio, berretsi dezan."

9.- Hainbat informazio.

.- Udalbatzako kideen soldatei buruz Nafarroako Administrazio Auzitegian jarri zen gora jotzeko errekursoari buruz esan du ezetsia izan dela. Soldata horiek osoko bilkuran harturiko azken erabakiari dagozkionak dira, ez da egoera aldatu.

.- Osoko bilkuran energia berriztagarrien azpiegituren ezarpena arautzeko Odietako Udal Plan Orokorraren aldaketa onesteari buruz, esan du Nafarroako Gobernuak (Lurraldearen antolamenduak) "informe global" delakoa eman duela, eta Industria Departamenduak ere txostena egin duela. Txosten horietan lurzoruaren kalifikazioa aldatzea eskatzen du, eta gai hori aztertu behar da. Industria Departamenduaren txostena zorrotzagoa eta gogorragoa da Udalaren asmoari dagokionez, eta, horregatik, arkitekto erredaktoreak gaia aztertu eta konponbide bat bilatzen ari dira Udalak hasierako onespenean duen irizpidea eta asmoa mantentzeko.

.- Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren ebazpen bat onartu da, Toki Azpiegituren Plan (TAP) berri bat onartzen hasteko. Bi hilabete eman dituzte obrak proposatzeko, eta balioetsitako memoriak



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

aurkeztu dituzte. Gobernu Taldea Odietako kontzejuekin bilduko da informazioa emateko eta jakiteko zer obra edo jarduketa egitea komeni zaien TAP berri honetan sartzeko.

10.- Presako mozioa: Aurrekontuan 6/2024 aldaketa egitea (kreditu berezia).

Udaleko alkate Urdanizek gai-zerrendan sartuta ez dagoen gai bat onartzea proposatu du, "presazko mozio" gisa izapidetu eta onar dadin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 81.-2 artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren (Toki Erakundeen Antolaketa eta Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena) 83., 91.-4 eta 97.-3 artikuluen edukia babespean. Hona hemen gaia:

"2024. ekitaldiko aurrekontuetan 6/2024 aldaketa egitea: Kreditu berezia.

Mozioa jorratu aurretik beharrezkoa da, hala badagokio, haren presako izaera onestea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 81. artikuluko 2. atalaren edukiarekin bat. Erabaki hori Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Mozioa jorratzeko presakotzat jo beharri dagokionez, Udanz alkateak esan du Udalar jakinarazi berri diotela Nafarroako Gobernuari 18.027,10 € ordaindu behar dizkiola *"tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital transferentzien aparteko funtsa"* delakoaren ekarpen aurreratua itzultzeko espedienteagatik. *Kontuan harturik kantitate hori ordaintzeko borondatezko epean ordaintzen ez bada, horrek korrituak sortuko dituela, eta azkenean betearazpen-bidez edo Odietako Udalak Toki Ogasunen Funtساتik jasotzen duen zuzkidura murriztuz kobratuko dutela, orain aurrekontu-aldaketa bat onartzeko proposamena egin da, berariaz gastu-partida bat gaitzeko eta kopuru horri dagokion diru-sarrera egiteko.*

Udalak osoko bilkura honetako gai-zerrenda egin ondoren jakin zuen ordaintzeko betebeharrak hori, eta, beraz, ezin izan zuen sartu, eta guztiz beharrezkoa da aldaketa hori onartzea ordainketa lehenbailehen egin ahal izateko. Hori dela eta, presazkoa da mozio hau onartzea.

EH Bildu Udaltaldeko bozeramaile Ane Miren Buitrón zinegotziak ez du hitza eskatu hitz egiteko, baina badirudi ez dagoela adostasunik premiazko egoera horren inguruan.

Hori dela eta, gai hau bozkatu da. Hona hemen horren emaitza:

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 5.
Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.
Abstentzioak: bat ere ez.

Gauzak horrela, eta bozketaren emaitza ikusita, Mozio hau osoko bilkurako gairerrendan sartzeko premia dagoela kontuan hartzeko **erabaki hau ONARTU da, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabaki horren testua:

"Gaia: Presako mozioa: Aurrekontuan 6/2024 aldaketa egitea (kreditu berezia).

Honako gastuko partida hau sortzea:

PARTIDA	ALDAKETA MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
1 9410 45000	Kreditu berezia	Covid-19 Funtsaren dirulaguntza itzultzea	18.027,10

Finantzabideak. Diru-sarrerako partida berri bat sortzea:

PARTIDA	FINANTZAZIO MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87010	Diru-zaintzako gerakina sartzea gastu orokorretarako	Diru-zaintzako gerakina gastu orokorretarako	18.027,10

Aldaketaren ondoko diru-zaintzako gerakinaren egoera:

2023ko ekitaldiko Kontuen Espedientea 2024ko martxoaren 12an onartu ondoren, hau da 2023ko ekitaldiko Diruzaintzako Gerakinaren egoera: Diruzaintzako Gerakina, guztira, **172.377,34 €** eta horiek guztiak gastu orokorre dagozkie, hau da, 0,0 € baliabide lotuen bidez.

1/2024 Aurrekontu Aldaketa onartu ondoren, aldaketa bat gertatu zen 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean. Honela geratu zen: Diruzaintzako gerakina, guztira, **161.377,34 €**-koa. Soberakin guztiak gastu orokorre dagozkie, eta, beraz, 0,00 € izan ziren baliabide lotuen bidez.

Odieta Udalak osoko bilkuran onarturiko 2/2024, 3/2024, 4/2024 eta 5/2024 aurrekontu-aldaketek EZ DUTE ALDAKETARIK SORTU 2023ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinean.

Aldaketaren prozedura:

Udalbatzak hasierako onespina eman ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da Odieta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, 15 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu dhal izan daitezzen. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, espedientea automatikoki onartuko da. Alegazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak espedientea behin betiko onartu beharko du, eta alegazio horiei buruz egokitzen jotzen duena erabaki.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - ERRIPA

(Navarra-Nafarroa)

11.- Udalbatzari alkatetzaren azken ebazpenen berri ematea.

Urdaniz alkateak Udalbatzako kideei aurreko Osoko Bilkura arruntetik izandako azken Alkatetza Ebazpenen laburpen bat eman die.

12.- Galde-eskeak.

Ez da ez eskaerarik ez galderarik egiten.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, batzarburuak bilkura bukatutzat eman du, 19:50ean. Horri buruzko akta hau egin da, eta horren fede ematen dut, idazkari naizen aldetik.